

Tolosaldea
garatzen

Tolosaldea Garatzen, S.A.eko epe luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiko hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrendaren Lehendakaritza-ebazpena (BOE 2023/12/16). 2 txanda.

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Administrazio Kontseiluak 2022ko abenduaren 12an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, 20/2021 legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako Enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarriak onartu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (245. Zenbakia, abenduaren 28koa) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (2023ko abenduaren 16an) Tolosaldea Garatzen, S.A.ko honako bi plazatarako:

- Turismo bulegoko gida informatzailea lanaldi osoan.
- Turismo bulegoko gida informatzailea lanaldi erdian.


Kalifikazio prozesua amaitu ondoren 2024ko abuztuaren 31n argitaratu zen iragarki taulan eta web orrian epaimahaiaren behin betiko kalifikazioa, destinoak aukeratzeko 10 lan eguneko epea zabalduz. Honela gelditu zen behin betiko kalifikazioa:

PLAZA	IZANGAIEN ORDENA	PUNTUAK
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi osoan)	1. Brian Iñaki Xabier Cullen Bruneval 2. Patxi Xabier Otxoa Lorente 3. Maite Arregui Sierra 4. Miren Karmele Moreno Zubeldia	100,00 80,00 53,54 20,00
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi erdian)	1. Patxi Xabier Otxoa Lorente 2. Maite Arregui Sierra 3. Miren Karmele Moreno Zubeldia	80,00 53,54 20,00

“Turismo bulegoko gida informatzailea (lanaldi erdian)” plazari dagokionez, 2024ko irailaren 20an, Patxi Xabier Otxoa Lorente izangaia bere hautagaitzari uko egiten diola eta prozesutik kanpo geldituko dela jakinarazi dio Tolosaldea Garatzen, S.A.ri. Hori horrela, Epaimahaiak argitaratutako behin betiko kalifikazio zerrendaren arabera plaza honetarako bigarren postuan zegoen Maite Arregui Sierra izangaia lehen postura igaroko da, eta beraz, bera izango da hautatutako izangaia.

Honenbestez, hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako baldintzak, hautagai bakoitzaren puntuazio ordena eta adierazitako lehenetsunak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Lehendakariak oinarri orokorretako 13. Puntuazio adierazitakoaren arabera, zera



Tolosaldea
garatzen

EBATZI DU

LEHENENGOA.- Egonkortze prozesuan hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda onartzea.

Egonkortze prozesuan hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda honakoa da hautagai bakoitzaren puntuazio-ordena eta destino aukeraketan adierazitako lehentasunak kontuan hartuta:

PLAZA	HAUTATUTAKO IZANGAIA	PUNTUAK
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi osoan)	1. Brian Iñaki Xabier Cullen Bruneval	100,00
Turismo Bulegoko Gida Informatzailea (lanaldi erdian)	1. Maite Arregui Sierra	53,54

BIGARRENA.- Deialdiko oinarri orokorretako 13. puntuari jarraiki, behin-behineko zerrenda hau Tolosaldea Garatzen, S.A.ko web orrian eta iragarki taulan argitaratu da 2024ko irailaren 23an eta hurrengo egunetik aurrera, hautagaiei 10 egun balioduneko epea eman da behin-behineko emaitza horien aurka dagokion erreklamazioa aurkezteko: hau da, **2024ko urriaren 7a arte**.

Tolosan, 2024ko irailaren 23an